

## I. XEDAPEN OROKORRAK

### ESTATUKO BURUZAGITZA

**10584** *12/2021 Errege Lege Dekretua, ekainaren 24koa, Energia-fiskalitatearen arloan eta energia sortzearen arloan premiazko neurriak hartzen dituen, eta ura erabiltzeko tarifa eta erregulazio-kanona kudeatzen dituen.*

I

2020ko amaieratik aurrera eta gehienbat 2021eko martxoaz geroztik, Espainiako elektrizitatearen handizkako merkatuaren prezioa ezohiko maila altuetara iristen ari da. Egoera hori larriagotu egin da azken asteetan; izan ere, ezohiko egoera meteorologikorik gertatu ez den arren, batez besteko prezioa 67,12 €/MWh izan da maiatzean, eta 86,56 €/MWh-koa, berriz, ekainaren 1etik 17ra bitartean. Elektrizitatearen prezioaren igoera horrek eragin zuzena du Espainiako kontsumitzaileen elektrizitate-fakturan.

Itxura guztiaren arabera, gainera, egoera hori ez da puntuala, eta, eperako merkatuen portaera aintzat hartuta, egiturazkoa bihurtzeko arriskua dago, 2021eko bigarren zatirako elektrizitate-gerokoen kotizazioa 83,32 €/MWh izan baita.

Prezio horiek alarma sortzen ari dira Espainiako gizartean; izan ere, handizkako prezio horiek ez diote berehala eragiten txikizkako kontsumitzaile gehienek fakturari, baina berehala aplikatzekoak dira kontratu-modalitate batzuetan (hala nola, KTBP prezio arautua –kontsumitzaile txikiarentzako borondatezko prezioa, alegia–, edo prezio dinamikoetan oinarritutako merkatu libreko kontratuak, *poolera* indexatuak), eta joera horri denbora nahikoz eusten bazaio, azkenean, gainerako kontsumitzaileen kontratuetan ere islatzen dira prezio horiek, kontratuak berrikustean.

EUROSTATEk 2020ko bigarren sei hilabetekoari buruz argitaratutako txikizkako prezioei buruzko datuen arabera, Espainiako etxeko segmenturako azken prezioak EB-27ko handienetan bosgarrenak dira, eta esandako inguruabarrek okertu egiten dute, horrenbestez, Espainiako kontsumitzaileentzat lehendik jada zegoen energia-kostu handiko egoera.

Kontuan izan behar da elektrizitatearen handizkako merkatuaren prezioa finkatzea faktore askoren mende dagoela eta zaila dela faktore horien gainean epe laburrean eragitea; energia elektrikoaren ekoizleek, izan ere, prezio desberdinak eskaintzen dituzte beren teknologien arabera, eta oreka lortu behar da eskaintzaren eta eskariaren artean, oreka horrek zehazten baitu elektrizitateak ordu bakoitzean zer prezio duen –gorabehera handiak izaten dira, eskariaren arabera–. Eskaria oso handia denean, prezioak igo egiten dira, eskari horri ezin zaiolako erantzun kostu aldakor txikiagoko teknologiak (energia berriztagarriak, adibidez) erabiltzen dituen eskaintzaren bitartez bakarrik, eta, hartara, kostu handiagoko teknologiak erabiltzen dituzten ekoizleen eskaintza erabili behar delako (gasaren ziklo konbinatuak, esaterako). Horrez gain, energia garestienek kostu aldakorrak nabarmen hazi dira koiunturalki, nazioarteko merkatuetan gas naturala eta CO<sub>2</sub>-a isurtzeko eskubideen kotizazioa garestitzearen ondorioz.

Hain zuzen, batez ere bi hauen ondorioz gertatu da handizkako prezioen bilakaera hori: gas naturalaren prezioaren bilakaeragatik (MIBGAS indizea urtarrilaren 1eko 21,25 €/MWh-tik ekainaren 16ko 29,14 €/MWh-ra igaro da), eta CO<sub>2</sub>-a isurtzeko eskubideen bilakaeragatik (30,92 €/t 2009ko abenduan, eta 51,78 €/t aurtengo ekainean).

Egoera horri trantsizio ekologikoaren eta energia-efizientziaren esparruan erantzun nahian, 2021-2030 aldirako Energia eta Klimaren Plan Nazional Integratua (EKPNI) egin da. Nazioarteko eta Europako ahaleginarekin Espainiak duen konpromisoa eta hari egindako ekarpena jasotzen ditu plan horrek. Zehazki, energia-sistema «deskarbonizatze» neurriak eta energia berriztagarriak sustatu eta hedatzeko neurriak ezartzen dira planean, gure herrialdeko berriztagarrien ahalmena –eguzki eta haizearena, bereziki– era efizientean baliatzea oinarri hartuta; izan ere, horrelakoak erabili energia

elektrikoa ekoizteak kostu aldakor txikiagoak ditu, eta zuzenean dakar elektrizitate-faktura murriztea.

Merkatu elektrikoaren goranzko prezioen egoera hori COVID-19ak eragindako krisi sanitarioaren testuinguruan gertatu da, eta krisi hori eragin handia izaten ari da, halaber, jarduera ekonomikoan: enplegua modu oso esanguratsuan murrizten ari da, eta kontsumitzaile kalteberen kopurua handitzen ari da, hain zuzen ere.

Gizarte-ekitatearen ikuspegitik, EINEk argitaratutako etxeetako gastuari eta familia-aurrekontuei buruzko estatistikak erakusten du elektrizitateak pisu erlatibo handiagoa duela errenta txikiena duten etxeetako kontsumo-saskian, eta horrek esan nahi du elektrizitatearen prezioen igoerak ondorio erregresiboak dituela, eta proportzionalki kalte handiagoa egiten diela errenta txikiena duten dezilei. Eta hori gaur egun Espainian dauden kontsumitzaile kalteberak babesteko eskemak alde batera utzita (elektrizitatearen gizarte-bonua), azken fakturaren gaineko deskontu batean oinarritzen baitira horiek.

Azaldutako egoerak askotariko ondorio negatiboak ditu: gizarte-alarma eta -ondoez gero eta handiagoaz gain, elektrizitatearen prezio altuek etxeetako errenta erabilgarrian eragiten dute, eta haren susperraldia geldiarazten dute COVID-19aren ondoko egoeran.

Era berean, mehatxu larria dira Espainiak eta Europar Batasunak onartutako «deskarbonizazio»-agendarako, haren palanka nagusietako bat jartzen baitute arriskuan: ekonomia elektrifikatzeko prozesua, energia-erabilerei lotutako isuriak murrizteko biderik efiziente eta efikazena baita.

«Deskarbonizazioa»ren arrakastari lotua, herritarrek ez dute ulertzen elektrizitatearen prezioak zergatik diren gero eta garestiagoak energia berriztagarriak gero eta hedatuago badaude, eta trantsizio energetikoaren prozesu osoarekiko gero eta mesfidantza handiagoa sortzen ari da hori.

Egoera hori izanik, elektrizitatearen azken prezioa dakarten osagaien gainean esku hartzen ari da Espainiako Gobernua, baita zergak ez diren kostu arautuei buruzko zatian ere («karguak» esaten zaie); hala, bada, Sistema Elektrikoaren Jasangarritasunerako Funtzaren bidez horiek erregai guztien artean banatzea proposatzen ari da.

Era berean, «CO<sub>2</sub>-aren dibidendua» delakoa gutxitzeko mekanismo bat proposatu da; CO<sub>2</sub>-a isurtzen ez duten zentral zaharrenek jasotzen dute hori. Mekanismo horren ondoriozko diru-sarrerak erabiliko dira araututako kostu horien zati bat finantzatzeko (berriztagarriak, kogenerazioa eta hondakinak sustatzeko direnak) eta pobrezia energetikoaren aurka borrokatzeko.

Neurri horiek, hala ere, ez dira epe laburrean onartuko, lege-proiektu gisa izapidetzen ari baitira, eta ez dute berehalako ondoriorik izango, horrenbestez. Horrez gain, gizarte zibileko kolektibo askok eta talde politiko nagusiek Gobernuari eskatzen diote elektrizitatearen fiskalitatearen gainean esku hartzeko, azken prezioen murrizketak handiagoak eta berehalakoagoak izan daitezen.

Elektrizitate-fakturaren beste osagaietako bat, berriz, elektrizitate-entregeri balio erantsiaren gaineko zergaren (BEZ, aurrerantzean) ehuneko 21eko tasa orokorra aplikatzea da.

Hala ere, Kontseiluaren balio erantsiaren gaineko zergaren sistema erkideari buruzko azaroaren 28ko 2006/112/EE Zuzentarauak 102. artikuluan ezartzen duenez, estatu kide orok zerga-tasa murriztua aplikatu ahalko die elektrizitate-entregeri, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Aholku Komiteari (aurrerantzean, BEZaren Komitea) kontsulta egin ondoren.

Lehen adierazi bezala, 2020ko amaieratik aurrera eta gehienbat 2021eko martxoaz geroztik, Espainiako elektrizitatearen handizkako merkatuaren prezioa ezohiko maila altuetara iristen ari da. Egoera hori larriagotu egin da azken asteetan, eta, testuinguru horretan, estatu kideei komeni zaie energia elektrikoaren hornidura jakin batzuei aplikatu beharreko BEZaren tasa jaisteko eman zaien ahalmena berehala erabiltzea, modu horretan neurria erabat eraginkorra dela bermatzeko. Hori dela eta, badirudi BEZaren Komitearen aurrean idatzitako prozedura bat dela egokiena zuzentarauaren manu hori betetzeko.

Ondorioz, elektrizitatearen prezioen igoerak sortutako egoerari erantzuteko, azaroaren 28ko 2006/112/EE Zuzentarauaren mugen barruan, salbuespen gisa eta aldi baterako

–2021eko abenduaren 31ra arte–, % 21etik % 10era jaitsiko da elektrizitate-fakturaren osagai guztiei dagokien BEZaren zerga-tasa 10 kW-ra arteko potentzia-termino finkoa duten energia elektrikoko kontratuetan, fakturazioaren aurreko hileko handizkako merkatuaren hileko batez besteko prezioa 45 €/MWh baino gehiago izan bada, hartara fakturaren zenbatekoa gutxitzeko.

Ondorio horietarako, kontuan hartu behar da 45 €/MWh-ko atalase hori lotuta dagoela Espainian 2021. urtean elektrizitatea epera entregatzeko sinatutako kontratuen 2020ko abenduko batez besteko kotizazioarekin. Esan bezala, kotizazio hori 83,32 €/MWh da 2021eko bigarren erdirako, eta, hortaz, aipatutako atalasea merkatuko etorkizuneko prezioen aurreikuspenen azpitik dago.

Adierazi behar da, orobat, neurri hori energia elektrikoaren hornidura-kontratu guztiei aplikatzen zaiela, betiere kontratatutako potentzia 10 kW edo txikiagoa bada; alegia, azken kontsumitzaileen ia etxe guztietan aplikatzen da, etxeko kontsumitzaileek kontratatutako batez besteko potentzia 4,1 kW baita gutxi gorabehera. Langile autonomo asko izango dira onuradun, halaber, neurri horri esker.

Horrez gain, kontsumitzaile kalteberenen energia-pobreziako egoerak arintzeko, ehuneko 10eko murrizketa ezarriko da gizarte-bonua jasotzen dutenen elektrizitate-hornidurako kontratuen titularren elektrizitate-fakturari aplikatu beharreko BEZaren zerga-tasan, kaltebera larriaren edo gizarte-bazterketako arriskuan dagoen kaltebera larriaren izaera onartuta badute, errege lege-dekretu honen indarraldian, handizkako merkatuko elektrizitatearen prezioa edozein izanik ere.

Izaera hori duten gutxi gorabehera 612.000 etxek aterako diote onura neurri horri: elektrizitatearen gizarte-bonuaren onuradun diren etxe guztien % 50k, gutxi gorabehera.

Proposamen hori BEZaren Komiteari jakinarazi ziztaion ekainaren 22an, idatzizko prozeduraren bidez.

Horrez gain, elektrizitatearen prezioa handizkako merkatuan zehazten duten enpresak kostu handiagoak jasaten ari dira, lehen esan bezala gas naturalaren prezioaren ondorioz eta CO<sub>2</sub>-a isurtzeko eskubideen bilakaeraren ondorioz; bada, hori konpentsatzeko, egokitzat jotzen dugu eragiketa-kostuetako bat murriztea, hain zuzen ere energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga.

Horrela, prezio lehiakorragoak eskaini ahalko dituzte berriz ere, eta horrek mesede egingo die kontsumitzaileei.

Horren ondorioz, salbuespen gisa, 2021eko hirugarren hiruhilekoan, energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergatik salbuetsita egongo dira elektrizitatea sortzen duten eta sistema elektrikoan txertatzen duten instalazioak.

Horrek berekin dakar tributu horren araudian erregulatutako zatikako ordainketen eta zerga-oinarriaren kalkulua aldatzea.

Etete hori, diru-sarreraren eta kostuen kalkulu onenen arabera, bateragarria da sistema elektrikoaren 2021eko ekitaldia orekan ixtearekin, Sistema Elektrikoaren abenduaren 26ko 24/2013 Legean ezarritako jasangarritasun ekonomiko eta finantzarioaren printzipioa errespetatuz.

## II

Ekainaren 7an, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapideen mende jarri zuen Espainiako bost itsas demarkazioetako itsas eremua antolatzeko planak (IEAPak) onartzen dituen errege-dekretuaren proiektua. IEAP horiek Itsas Eremua Antolatzeko Esparrua Ezartzen duen apirilaren 8ko 363/2017 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera gauzatuko dira. Araudi horrek ordenamendu juridiko nazionalera ekarri zuen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko uztailaren 23ko 2014/89/EB Zuzentaraua, itsas eremua antolatzeko esparrua ezartzen duena. Itsas eremua antolatzeko esparru berri honen ondorioz, berrikusi egin beharko dira elementu komun gisa itsas eremuan jarduerak egiteko zonak esleitzea edo erreserbatzea duten baimen- edo emakida-prozedurak.

Horixe gertatzen da itsas eremuan energia elektrikoa ekoizteko instalazioak baimentzeko indarrean den administrazio-prozedurarekin, zeina uztailaren 20ko 1028/2007

Errege Dekretuaren bidez ezarri baitzen (1028/2007 Errege Dekretua, uztailaren 20koa, Jurisdikziopeko uretan elektrizitatea sortzeko instalazioak baimentzeko eskaerak tramitzatzeko administrazio-prozedura ezartzekoa). Errege-dekretu horren II. tituluak instalazioak baimentzeko prozedura bat garatzen du, eta prozedura horrek berekin dakar, administrazio-baimena izapidetu aurretik, lehia-konkurrentziako prozeduraren bidez zona baten erreserba eskatzea eta onartzea.

Gaur egun izapidetzen ari den itsas eremuaren antolamendu berriaren argitan, eta Espainiako Itsas Energia Eolikoa eta Itsasoko Energiak garatzeko prestatzen ari den etorkizuneko bide-orriak ezartzen duen esparruan, beharrezkoa da, hirugarren xedapen gehigarriaren bidez, jurisdikziopeko uretarako administrazio-baimenaren eta zona-erreserbaren beste eskaerarik ez onartzea, uztailaren 20ko 1028/2007 Errege Dekretuaren babesean, harik eta oraingo prozedura IEAPak izapidetzearen ondoriozko itsas eremuaren antolamendura eta bide-orriaren edukira egokitzen duen esparru berria garatzen den arte.

### III

Krisi sanitario eta ekonomikoaren inpaktuaren ondorioz, uztailaren 4ko 19/2003 Legea aldatu zen (Kapital-mugimenduen eta atzerriarekiko transakzio ekonomikoen araubide juridikoari buruzkoa), martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren bidez, zeinak artikulua berri bat erantsi baitzuen, 7 bis artikulua, Espainian zuzeneko atzerriko inbertsio jakin batzuen liberalizazio-araubidea eteteko.

7 bis artikulua araberak, atzerriko inbertsio zuzenak honela definitzen dira: EBtik eta Europako Merkataritza Askearen Elkartetik (EFTA) kanpoko herrialdeetan bizi direnek egiten dituztenak –edo EBko edo EFTAko herrialdeetan bizi direnek egiten dituztenak, benetako titularrak EBtik edo EFTatik kanpo bizi direnean–, baldin eta horien ondorioz inbertitzaileak Espainiako konpainiaren ehuneko 10 edo gehiago edo haren kudeaketan eta kontrolean partaidetza efektiboa badu.

COVID-19aren pandemiak eragindako osasun-krisiaren eragin ekonomikoa handia dela eta luze dirauela kontuan hartuta, Enpresa-kaudimena eta energiaren sektorea laguntzeko eta zerga-arloko premiazko neurrien azaroaren 17ko 34/2020 Errege Lege Dekretuak Europar Batasunetik eta Europako Merkataritza Askearen Elkartetik datozen inbertsioetara zabaltzen du, zenbait egoeratan, 19/2003 Legearen 7 bis artikuluan ezarritako babesa. Horrela, xedapen iragankor bakarraren bidez, aipatutako errege lege-dekretuak araubide iragankor bat ezarri zuen, 2021eko ekainaren 30era arte, eta, horren arabera, 7 bis artikulua 2. eta 5. apartatuetan araututako atzerriko zuzeneko inbertsio jakin batzuen liberalizazioa eteteko araubidea aplikatuko zaie, halaber, Europar Batasuneko eta Europako Merkataritza Askearen Elkarteko beste herrialde batzuetan bizi direnek Espainiako enpresa kotizatuen gainean egiten dituzten inbertsioei –baita kotizatu gabeko enpresen gainean egiten dituztenei ere, inbertsioaren balioa 500 milioi eurotik gorakoa bada–.

Enpresa-kaudimena eta energiaren sektorea laguntzeko eta zerga-arloko premiazko neurrien azaroaren 17ko 34/2020 Errege Lege Dekretuaren xedapen iragankor bakarrean aurreikusitako dataren epemuga hurbil dagoenez, beharrezkoa da beste epe bat jartzea, neurri hori 2021eko abenduaren 31ra arte luza dadin, hura hartzea eragin zuten inguruabarrek bere horretan jarraitzen dutelako eta ekonomia oraindik ere suspertzen ari delako.

Arau honen bidez, luzatu egiten da neurri iragankor horren indarraldia gure herrialdeko segurtasun, osasun eta ordena publikoen babesa ziurtatzeko; izan ere, COVID-19ak eragindako krisi sanitarioan murgilduta gaude oraindik, eta krisi hori luzatzen ari denez, beharrezkoa da horrelako neurriak hartzea.

Hala, errege lege-dekretu honen azken xedapenetako bigarrenaren bidez, aldatu egiten da azaroaren 17ko 34/2020 Errege Lege Dekretuaren xedapen iragankor bakarra, 2021eko abenduaren 31ra arte luzatzeko araubide iragankor hau: atzerriko zuzeneko inbertsio jakin batzuen liberalizazioa eteteko araubidea (7 bis artikulua 2. eta 5. apartatuetan arautzen duena) Espainiako enpresa kotizatuetan egindako zuzeneko atzerriko inbertsioei ere aplikatzen dien araubide iragankorra –baita kotizatu gabeko

enpresetan egindakoei ere, inbertsioaren balioa 500 milioi eurotik gorakoa bada-, inbertsio horiek Europar Batasuneko eta Europako Merkataritza Askearen Elkarteko beste herrialde batzuetan bizi direnek eginak direnean. Ondorio horietarako, Espainiako sozietate kotizatuak izango dira Espainiako bigarren mailako merkatu ofizial batean negoziatzeko onartuta dauden akzioak dauzkaten sozietateak, baldin eta egoitza soziala Espainian badute.

Azken xedapenetako hirugarrenaren bidez, aldatu egiten da 19/1994 Legea, uztailearen 6koa, Kanarietako Ekonomia eta Zerga Erregimena aldatzen duena, kenkariaren muga absolutua 5,4 milioitik 12,4 milioira eguneratzeko, Estatuko mugan egin diren aldaketei jarraituz, Kanarietako penintsulako kenkari-mugarekiko diferentzialari euts diezaioten.

Gainera, aldaketa bat egin da hirugarren paragrafoan, arrazoi hauek direla tarteko:

Aurretik, Sozietateen gaineko Zergaren Legearen 36.2 artikulua ez zituen bi letra [a) eta b)]. Baina 17/2020 Errege Lege Dekretua eman ondoren, hura 34/2020 Errege Lege Dekretuaren bidez aldatu beharra egon zen, ikus-entzunezko sektoreko lan zinematografikoetarako eta beste ekoizpen batzuetarako estatu-laguntzari buruzko Europako Batzordearen Komunikaziora egokitzeko. Horregatik, orain, zehatzago idatzi beharko litzateke aipatutako paragrafoa, Sozietateen gaineko Zergaren Legearen 36.2 artikulua erregulazio berri horretara egokitzeko.

«Postproduktzio-zerbitzuak» terminoa «efektu bisualen zerbitzuak» terminoarekin eguneratuko da, teknikoki baliokideak direlako Zinematografiaren eta Ikus-entzunezko Arteen Institutuak ezarritakoarekin bat.

Ez dago aldaketarik gaur egungo tributazioan; idazketa egokitu da, besterik gabe.

Aldaketa hori indarrean jartzea 2020an hasten diren zergaldietara mugatuko da.

#### IV

Abenduaren 29ko 1183/2020 Errege Dekretuak, Energia elektrikoaren garraio- eta banaketa-sareetarako sarbide eta konexioarenak, denbora-hurrenkera ezartzen du sarbidea emateko irizpide orokor gisa. Hala ere, V. kapituluaren, sarbide-kapazitateari buruzko lehiaketak egitea jasotzen du sarbidea emateko kasu berezi gisa. Garraio-sareko korapilo jakin batzuetan deitu ahalko dira lehiaketa horiek, elektrizitatea sortzeko instalazioak, jatorri berriztagarriko energia primarioko iturriak erabiltzen dituztenak, sarera konektatzeko eta biltegiatze-instalazioetarako. V. kapitulu horretan xedatzen da baldintza zehatz batzuk betetzen dituzten garraio-sareko korapiloetan egin ahalko direla lehiaketak.

Era berean, egin litekeen lehiaketarako sarbide-kapazitatea erreserbatu eta metatzeko prozedura arautzen da, bai eta sistemaren operadoreak txostena egiteko betebeharra ere (horretan oinarrituta ebatziko da lehiaketa egitea). Horrez gain, lehiaketa bat deitzeko gehieneko epea ere jasotzen da kapitulu horretan.

Ekonomiaren deskarbonizazio- eta elektrifikazio-prozesua, batetik, 2021-2030 aldirako Energia eta Klimaren Plan Nazional Integratuan (EKPN) dago aurreikusita –Ministro Kontseiluaren 2021eko martxoaren 16ko Erabakiaren bidez onartutakoan–, eta, bestetik, Epe luzerako 2050 Estrategian, Ministro Kontseiluaren 2020ko azaroaren 3ko Erabakiaren bidez onartutakoan. Prozesu horrek barnean hartzen ditu energia-kontsumoa optimizatzeko eta erregai fosilen ordez energia berriztagarria sortzeko beharrezkoak diren neurriak eta jarduketak. Aurreikusten da ezen, prozesu horri esker, 2030ean, berriztagarrien bidez erantzungo zaiola energiaren azken kontsumoaren % 42ri, energia berriztagarrien sorkuntza bultzatuta, hala autokontsumorako etxebizitzaren eta industrien teilatuetan, nola Estatu osoko askotariko neurrietako instalazioetarako. Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen arabera, energia elektrikoaren ekoizpena jarduera liberalizatu bat da, ez dago plangintza lotesle baten mende, eta, gainera, baimenen erregimen arautu bat eta ingurumen-inpaktuaren gaineko ebaluazioa bete behar ditu, Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legean jasotakoarekin bat. Era berean, ekoizpen-instalazioek sare elektrikorako sartzeko eta konektatzeko baimenak lortu behar dituzte, sortutako energia sareratu ahal izateko.

Horrela, energia berriztagarriak ekoizteko eta biltegitzeko instalazioen kokapenari dagokionez, aurreko paragrafoan jasotakoa kontuan hartuta, instalazio horien kokapena erabakitzeke, sustatzaileak ezinbestean aztertu beharko du baliabide berriztagarriren bat dagoen, ingurumen- eta gizarte-inpaktuak minimizatzen diren eta kokagunetik gertu garraio- eta banaketa-sareetako korapilorik dagoen, hara bideratzeko sortzen duten energia, zeina dagokion ingurumen-izapidearen mende jarriko baita. Espainiako geografian faktore horiek bikain uztartuta ageri dira zenbait tokitan, eta, hori dela eta, horrelako proiektuak aurrera eramateko gogo handia dago eremu jakin batzuetan.

Espainiako energia-politikaren arloko helburuak eta berriztagarriak ezartzekoak EKPNi planean ez ezik, Klima Aldaketarena eta Trantsizio Energetikoaren maiatzaren 20ko 7/2021 Legean ere ezarrita daude. Lege horrek 2. artikuluan ezartzen duenez, legearen ondoriozko jarduketetan, besteak beste, Espainiako ekonomiaren deskarbonizazio-printzipioak beteko dira (alegia, berotegi-efektuko gas-emisiorik gabeko eredu sozioekonomiko bat lortzea izango da helburua), gizarte- eta lurralde-kohesioa irizpideei jarraituko zaie, eta, bereziki, energia berriztagarrien zentralak kokatuta dauden eremuen harmonizazioa eta garapen ekonomikoa bermatuko dira eta ingurumen-balioak errespetatuko dira.

Ondorioz, ekonomiaren deskarbonizazioa ekarriko duen energia berriztagarriaren sorkuntza eta ingurumena eta gizarte- eta lurralde-kohesioa bateragarri egin nahian, azken xedapenetako laugarrenak abenduaren 29ko 1183/2020 Errege Dekretua aldatzen du, sarbide-kapazitatea emateko orduan ukitutako eremuen tokiko eta ingurumeneko alderdiak ere kontuan har daitezzen, eta horri esker, lehiaketetan sarbide-kapazitatearen esleipendun gertatzen diren proiektuak hauek izan daitezzen: ahalik eta itzulkin orokor gehien sortzen eta lurraldeetako ahalmen endogenoak garatzea sustatzen dutenak, hartara energia-politikaren arloko helburuak eta berriztagarriak hedatzekoak lortzen laguntzeko.

Horretarako, 4. apartatu bat eranstean da lehiaketei aplikatu beharreko irizpideei buruzko 19.1.d) artikuluan. Apartatu horrek aukera ematen du lehiaketa horietan tokiko eta ingurumeneko alderdiak kontuan hartzeko, energia berriztagarria sortzeko instalazioak kokatuta dauden eremuetan onarpen handiagoa lortzeko.

## V

Auzitegi Gorenak, erregulazio-kanona eta ura erabiltzeko tarifa onartzeko uneari dagokionez, behin eta berriz adierazi du uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Uren Legearen testu bateginaren 114.7 artikulua bazueta baimendu gabeko atzeraeragina, eta, horregatik, etengabe indargabetu ditu manu horri jarraikiz egindako bi tasen likidazioak, zeinak administrazioarekiko auzibidean aurkaratzen baitziren.

2021erako Estatuko Aurrekontu Orokorren abenduaren 30eko 11/2020 Legearen bederatzigarren xedapen gehigarriaren 3. apartatuak aldatu egin du Uren Legearen testu bategin horretako 114. artikuluaen –«Erregulazio-kanona eta ura erabiltzeko tarifa» izenekoa– 7. apartatua, eta hau ezarri du: «Arroko erakundeak, artikulua honetan ezarritakoaren arabera, erregulazio-kanonaren eta ura erabiltzeko tarifaren urteko zenbatekoak zehaztuko ditu haiek zer ekitaldira aplikatu behar zaizkion eta ekitaldi hori hasi aurretik, eta dagozkion likidazioak egingo ditu haiek aplikatu behar diren urte naturalaren hurrengo urteko lehen seihilekoaren barruan».

Ordenamendu juridikoak debekatzen zuen atzeraeragina ezabatu nahi zen, Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak adierazi bezala, eta horixe ekarri du Uren Legearen testu bategineko 114.7 artikuluaen idazketa berriak. Ildo horretan, manuaren idazketa berriak xedatzen du kanonak eta tarifak haiek aplikatu behar diren urtea hasi aurretik onartu behar direla. Disfuntzio bat ekarri du, halere, kanonak eta tarifak aplikatzeko garaian, haien likidazioak urtero egiteari dagokionez. Aldaketa hori, 2021eko urtarrilaren 1ean indarrean jarri zenetik beretik, hitzez hitz aplikatzeak, ondorio praktikoetarako, hauxe dakar: konfederazio hidrografiko guztiek 2021ean emandako zerbitzuen kostuak berreskuratzeko 2021ean likidatu beharreko kanonak eta tarifak ezin dira likidatu haiek aplikatu behar diren urtean –2021ean, alegia–, eta 2022. urteko lehen seihilekora arte itxaron behar da likidazio hori egiteko.

Egoera horrek urratu egiten du Uren Legearen testu bategineko 111 bis artikulua Estatuarentzat aurreikusten duen kostuak berreskuratzeko printzipioa. Konfederazio hidrografikoek zerbitzuak emango dizkiete oraindik erabiltzaileei 2021. urtean, baina ezingo dituzte urte horretako kostuak berreskuratu, ematen dituzten zerbitzuengatik urtero jasotzen dituzten diru-sarrerarik gabe geldituko baitira.

Xedapen iragankor bakarrak likidazio-aldia luzatzea aurreikusten du, 2021ari dagozkion erregulazio-kanonak eta ura erabiltzeko tarifak likidatzeko, zehazki haiek aplikatu behar diren urte naturalaren hasieratik –hau da, 2021etik– hurrengo urteko lehen sei hilekoa amaitu arte; eta azken xedapenetako bosgarrenak eta seigarrenak bilketa-aldia luzatzen dute, orobat, etorkizuneko ekitaldietarako.

## VI

Espainiako Konstituzioaren 86. artikulua arabera, Gobernuak lege-dekretuak eman ditzake «aparteko eta presazko beharrezko dagoenetan», baldin eta ez badute eraginik Estatuaren oinarriko erakundearen ordenamenduan, ez Konstituzioaren I. tituluak arautzen dituen herritarren eskubide, eginbehar eta askatasunetan, autonomia-erkidegoen araubidean eta hauteskunderi buruzko zuzenbide orokorrean.

Errege lege-dekretua, Konstituzioaren arabera, tresna zilegia da, baina, horretarako, Konstituzio Auzitegiak behin eta berriro eskatu bezala (6/1983 epaia, otsailaren 4koa, 5. oinarria; 11/2002 epaia, urtarrilaren 17koa, 4. oinarria; 137/2003 epaia, uztailaren 3koa, 3. oinarria, eta 189/2005 epaia, uztailaren 7koa, 3. oinarria; 68/2007 epaia, 10. oinarria, eta 137/2011 epaia, 7. oinarria), presazko legegintza justifikatzen duen xedea egoera jakin batean laguntzea izan behar da, Gobernuaren helburuen barruan laguntzea betiere, aurreikusten zailak diren arazoengatik araudia berehala ematea eskatzen duen egoera batean –esan nahi baita ohiko bidea erabilita edo legeen izapidetze parlamentarioarako presazko prozedura erabilita beharko litzatekeena baino epe laburragoan–, eta errege lege-dekretua are tresna zilegiagoa da prozedura hori zehaztea Gobernuaren esku ez dagoenean.

Beraz, ziurtatuta geratu behar da badela «ezinbesteko lotura bat zehaztutako presazko egoeraren eta egoera hori konpontzen laguntzeko neurri zehatzaren artean (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: 29/1982 epaia, maiatzaren 31koa, 3. oinarri juridikoa; 182/1997 epaia, urriaren 20koa, 3. oinarri juridikoa, eta 137/2003 epaia, uztailaren 3koa, 4. oinarri juridikoa)».

Ez dago inolako zalantzarik neurri horiek hartu beharra dagoela, gure herrialdeko kontsumitzaileek eta enpresek aurre egin behar dietelako hauei guztiei: elektrizitatearen merkatuko prezioen gorabeherari eta garestitzeari; sektore elektrikoaren eta kontsumo-ohituren trantsizio beharrezkoari, energia berriztagarrietan eta «deskarbonizazioan» oinarritutako sistema eraginkorragoa lortzeko; eta COVID-19aren ondoriozko egoera sozioekonomikoari eta etxeko premiak asetzeko behar adina energia ordaintzeko zailtasun handia duten etxe kalteberen kopurua handitu izanari. Gauza bera gertatzen da Europar Batasuneko eta Europako Merkataritza Askearen Elkarteko beste herrialde batzuetan bizi direnek egindako atzerriko zuzeneko inbertsio jakin batzuen liberalizazioa eteteko araubide iragankorraren indarraldia luzatzeari dagokionez, gure herrialdean segurtasuna, osasuna eta ordena publikoa babesteko, krisi sanitariotik irtetea eta susperraldi ekonomikoa sendotu bitartean.

Era berean, itsas eremua antolatzeko araudi berriaren argitan, itsas energia eolikoa sortzeko instalazioak izapidetzeko araudiaren egiturazko erreforma egin behar da, energia berriztagarrien ordainsari-esparruaren bilakaera eta aurrerapen teknologikoak ere kontuan hartuta. Gaur egun, 13 GW-tik gorako zona-erreserbaren eskaerak erregistratu dira; horrenbestez, araudi hori garatzen den bitartean, eragotzi behar da arau-aldaketa horren itxaropenek eskaeren hazkunde esponentziala eragitea, horrek segurtasun juridikorik eza ekarriko luke eta.

Egoera hori eragozteko, premiazko eta aparteko legegintza-prozedura baten bidez jardun behar da, eta horrelakoa da errege lege-dekretua, adibidez.

Halaber, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren urtarrilaren 20ko 1/2021 Zirkularrarekin bat etorritik (horren bidez, energia elektrikoa ekoizteko instalazioen garraio-eta banaketa-sareetara sartzeko eta konektatzeko metodologia eta baldintzak ezartzen dira), sarearen kudeatzaileek sarearen korapiloetan erabilgarri dauden kapazitateak argitaratuta eduki beharko dituzte heldu den uztailaren 1ean, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren 2021eko maiatzaren 20ko Ebazpenaren bidez onartutako xehetasun-zehaztapenen arabera kalkulaturik; ebazpen horren bidez, xehetasun-zehaztapenak ezartzen dira garraio-sarerako eta banaketa-sareetarako sorkuntzarako sarbide-kapazitatea zehazteko.

Abenduaren 29ko 1183/2020 Errege Dekretuak, V. kapituluaren ezarritako kasuetan, garraio-sareko korapiloen kapazitatea lehiaketa bidez ematea aurreikusten du; lehiaketa horiek beste irizpide batzuk hartuko dituzte kontuan, energia-politikaren helburuak eta berriztagarriak hedatzekoak lortzea lehenetsita.

Halaber, 19. artikuluan jada ezarritako irizpideez gain, ahalmen ekonomiko endogenoen garapenari eta proiektuen ingurumen-inpaktua minimizatzeari buruzko beste batzuk ezarri behar dira. Hori guztia, berriztagarrien ezarpenak lurraldeetara ekarritako itzulkina ahalik eta handiena izatea eta tokiko mailan onartzea bermatzeko, eta, azken batean, Ministro Kontseiluaren 2021eko martxoaren 16ko Erabakiaren bidez onartutako 2021-2030 aldirako Energia eta Klimaren Plan Nazional Integratuaren helburuak betetzeko.

Laster argitaratuko da sarbide-kapazitateari buruzko informazioa, uztailaren 1ean zehazki, eta, horren ondorioz, Energiaren Estatu Idazkaritzak esan beharko du araudian ezarritako baldintzak betetzen dituzten sare-korapiloetan lehiaketak deitzeko aukerarik egongo den, eta, hartara, sarbide-kapazitatearen lehen lehiaketaren deialdia egiteko prozedurari ekingo zaion. Hori dela eta, 19. artikulua lehenbailehen aldatu behar da irizpide horiek jasotzeko, lehiaketen deialdia egiteko erabakia lehiaketa horietan bete beharreko arau-esparruari jarraituz har dadin.

Era berean, errege lege-dekretu honen bidez uren legeria erreformatzeko arrazoia zera da, konfederazio hidrografikoen aurre egin ahal izatea 2021erako Estatuko Aurrekontu Orokorren abenduaren 30eko 11/2020 Legearen azken xedapenetako 9.aren 3. apartatuak Uren Legearen testu bateginean egindako aldaketak ekarritako egoeraren ondorio larriak. 114.7 artikulua egungo idazketak ekarriko du konfederazio hidrografikoen, oro har, 216 milioi euro gutxiago eskuratzea. Zenbateko hori ezingo dute beste prozedura baten bidez jaso, eta, ondorioz, aurrekontu-desoreka handiaz gain, beren jardueren zati handi bat geldiaraztea ekarriko du horrek; finean, Uren Legeak esleitzen dien zerbitzu publikoa emateari utziko diote neurri handi batean.

Ondorioz, errege lege-dekretu hau onartzeko aparteko eta presazko beharrezana Gobernuari dagokion judizio politikoaren edo egokitasun-judizioaren mende dago, Estatu politikoki zuzentzeko organoa den aldetik (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: 61/2018, ekainaren 7koa, 4. eta 7. oinarri juridikoak, eta 142/2014, irailaren 11koa, 3. oinarri juridikoa); erabaki horrek, zalantzarik gabe, jarduteko lehentasun politikoak antolatzea beharra dakar (Konstituzio Auzitegiaren urtarrilaren 28ko 14/2020 epaia), hauetan oinarrituta: segurtasun juridikoa betetzea, herritarrei eta enpresei bidezko prezioak eta prezio lehiakorak bermatzea, eta segurtasuna, osasuna eta ordena publikoa babestea susperraldi ekonomikoaren fase honetan. Azaldu berri diren egokitasun-arrazoiek erakusten dute errege lege-dekretu hau onartzeak ez duela esan nahi inolaz ere konstituzio-tresna hau abusuz edo modu arbitrarioan erabili denik (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: 61/2018, ekainaren 7koa, 4. oinarri juridikoa; 100/2012, maiatzaren 8koa, 8. oinarri juridikoa; 237/2012, abenduaren 13koa, 4. oinarri juridikoa; 39/2013, otsailaren 14koa, 5. oinarri juridikoa). Aitzitik, azaldutako arrazoi guztiek erruz eta modu arrazoituan justifikatzen dute arau hau ezartzea (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: 29/1982, maiatzaren 31koa, 3. oinarri juridikoa; 111/1983, abenduaren 2koa, 5. oinarri juridikoa; 182/1997, urriaren 20koa, 3. oinarri juridikoa).

Errege lege-dekretu honek, gainera, ez du eraginik izango Estatuaren oinarritzko erakundearen ordenamenduan, Konstituzioaren I. tituluak arautzen dituen herritarren



eskubide, eginbehar eta askatasunetan, autonomia-erkidegoen araubidean eta hauteskunderi buruzko zuzenbide orokorrean.

Aldaketak egiteko aparteko eta presazko beharizana dago, aldaketa horiek txertatzeko epe luzaezinak jarri behar direlako eta aldaketa horien onespina atzeratzeak ondorio negatiboak eragingo lituzkeelako.

Azaldu dugun hori guztia dela eta, «aparteko eta presazko beharizana» dago oraingo egoeran; horrela, Espainiako Konstituzioaren 86.1 artikulua Gobernuari errege lege-dekretuak eman ahal izateko ezartzen dion baldintza betetzen da.

Gainera, Konstituzio Auzitegiak maiatzaren 8ko 100/2012 epaiaren 9. oinarri juridikoan adierazi bezala, «zerga-arloa lege-erreserbaren printzipioaren mende egoteak (Espainiako Konstituzioaren 31.3, 133.1 eta 133.3 artikulua) eta erreserba horrek izaera erlatiboa eta ez absolutua edukitzeak «ez du esan nahi, nahitaez, zerga-arloa lege-dekretuaren erregulazio-eremutik kanpo dagoenik; beraz, lege-dekretua zerga-arloan sartu ahalko da, baldin eta Konstituzioan kasu horietarako ezarritako baldintzak betetzen badira eta kanpoan utzitako gaiei, terminoaren zentzu konstituzionalean, 'eragiten' ez bazaie» (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: 182/1997, urriaren 28koa, 8. oinarri juridikoa; 137/2003, uztailaren 3koa, 6. oinarri juridikoa; 108/2004, ekainaren 30ekoa, 7. oinarri juridikoa; 245/2004, abenduaren 16koa, 4. oinarri juridikoa, eta 189/2005, uztailaren 7koa, 7. oinarri juridikoa). (...) Eta, horri dagokionez, Konstituzioaren I. tituluaren bigarren kapituluko 2. atalean, «Herritarren eskubideak eta betebeharrak» izenburupean, Espainiako Konstituzioaren 31.1 artikulua «benetako agindu juridikoa» ezartzen du, «eskubide eta betebeharren iturria dena», eta, haren arabera, «herritarrek, zergen bidez, gastu publikoei aurre egiten edo horiek finantzatzen lagundu behar dute» (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: 182/1997, urriaren 28koa, 6. oinarri juridikoa; 245/2004, abenduaren 16koa, 5. oinarri juridikoa, eta 189/2005, uztailaren 7koa, 7. oinarri juridikoa). Ondorioz, «lege-dekretuak ukitu ezin dituen eginbeharretako bat da Espainiako Konstituzioaren 31.1 artikuluan aipatzen den gastu publikoei eusten laguntzeko eginbeharra» (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: 137/2003, uztailaren 3koa, 6. oinarri juridikoa; 245/2004, abenduaren 16koa, 5. oinarri juridikoa, eta 189/2005, uztailaren 7koa, 7. oinarri juridikoa).

Bada, Espainiako Konstituzioaren 31.1 artikulua «ahalmen ekonomikoaren irizpidearekin lotzen du laguntzeko eginbehar hori», eta, era berean, «zerga-sistema osoarekin» lotzen du, «ez edozein tributu-figurarekin zehazki». Beraz, argi geratzen da, «lege-dekretuak ezingo ditu aldatu ez araubide orokorra eta ez zerga-kargaren zehaztapenean eragina duten funtsezko elementuak, eta, horrela, ezingo du ukitu gastu publikoei nork bere aberastasunaren arabera eta zerga-sistema justu baten bidez eusten laguntzeko eginbehar orokorra» (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: 182/1997, urriaren 18koa, 7. oinarri juridikoa; 137/2003, uztailaren 3koa, 6. oinarri juridikoa; 108/2004, ekainaren 30ekoa, 7. oinarri juridikoa, eta 189/2005, uztailaren 7koa, 7. oinarri juridikoa). Hala, Espainiako Konstituzioaren 86. artikulua urratuko du «edozein esku-hartzek edo arau-berrikuntzak, baldin eta, duen garrantzi kualitatibo edo kuantitatiboagatik, nabarmen aldatzen badu bere ahalmen ekonomikoaren arabera ekarpena egitera behartuta dagoen zergadunak zerga-sisteman duen posizioa» (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: 182/1997, urriaren 28koa, 7. oinarri juridikoa; 137/2003, uztailaren 3koa, 6. oinarri juridikoa; 108/2004, ekainaren 30ekoa, 7. oinarri juridikoa, eta 189/2005, uztailaren 7koa, 7. oinarri juridikoa). Beraz, kontuan hartu behar da «kasu bakoitzean zer tribututan duen eragina errege lege-dekretuak –zerga-sistema osoan zer izaera, egitura eta funtzio dauzkan zehaztuta, bai eta ahalmen ekonomikoaren printzipioa zenbateraino edo zer neurritan betetzen den ere–, zergaren zer osagai (funtsezkoak zein ez) aldatzen dituen araugintza-modu berezi honek eta, azken batean, zein den dena delako arauaren izaera eta irismena» (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: 182/1997, urriaren 28koa, 7. oinarri juridikoa; 137/2003, uztailaren 3koa, 6. oinarri juridikoa; 108/2004, ekainaren 30ekoa, 7. oinarri juridikoa, eta 189/2005, uztailaren 7koa, 7. oinarri juridikoa).

Gogoeta horiek kontuan hartuta, esan daiteke ez dela urratzen Konstituzioaren 31. artikulua; izan ere, lehen aipatutako Konstituzio Auzitegiaren 100/2012 epaian adierazten den bezala (9. oinarri juridikoa), «(...) ez da funtsezko aldaketarik eragin herritarrek zerga-

sistema osoan duten posizioan, eta, beraz, ez da ukitu Espainiako Konstituzioaren 31.1 artikulua adierazten duen gastu publikoak eusten laguntzeko eginbehar konstituzionalaren funtsa» (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: 137/2003, uztailaren 3koa, 7. oinarri juridikoa, eta 108/2004, ekainaren 30koa, 8. oinarri juridikoa).

## VII

Errege lege-dekretu honek bete egiten ditu Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan jasotzen diren erregulazio onaren printzipioak.

Hala, bete egiten da premiaren printzipioa, zeina guztiz justifikatuta geratu baita. Segurtasun juridikoaren, proportzionaltasunaren eta efikaziaren printzipioak ere betetzen dira, eta nabarmentzen da neurriak ordenamendu juridikoarekin bat datozela eta haiekin aukerarik onena egiten dela salbuespenezko egoera ikusita, aurrez aipatutako helburuak lortzeko behar den eta ezinbestekoa den erregulazioa biltzen baitute.

Gardentasun-printzipioari dagokionez, errege lege-dekretu bat denez, ez du aurretiazko kontsulta publikorik behar, ez eta entzunaldi-izapiderik eta informazio publikoaren izapiderik ere, Gobernuaren azaroaren 27ko 50/1997 Legearen 26.11 artikulua araberatzen.

Azkenik, efizientzia-printzipioari dagokionez, behar-beharrezkoak diren kargak baino ez dira ezartzen.

Errege lege-dekretu honek hitzaurrea eta xedapen-zatia ditu, zeinak egitura hau baitu: bi artikulua, hiru xedapen gehigarri, xedapen iragankor bat eta bederatzi azken xedapen; eta Espainiako Konstituzioaren 149.1 artikuluko 10., 13., 14., 22. eta 25. puntuetan xedatutakoaren babesean ematen da. Artikulu horrek Estatuari esleitzen dio arlo hauen gaineko eskumena: kanpo-merkataritza; jarduera ekonomikoaren plangintza orokorra; herri-ogasuna; baliabide eta aprobetxamendu hidraulikoen gaineko legegintza, antolamendua eta emakida, urek autonomia-erkidego bat baino gehiago zeharkatzen dutenean; eta meatzeen eta energiaren araubideen oinarriak.

Era berean, Gobernuari eta Ogasun Ministerioi eta Trantsizio Ekologikorako eta Erroka Demografikorako Ministerioi titularrei gaitz ematen zaie, beren eskumenen esparruan, errege lege-dekretu honetan xedatutakoa garatzeko eta betearazteko beharrezkoak diren xedapenak eman eta neurriak har ditzaten; izan ere, arrazoi teknikoak direla kausa, baliteke Ministro Kontseiluak edo ministerio-sail eskudunek zehaztutako batzuk egin behar izatea errege lege-dekretu honetan.

Horregatik, Espainiako Konstituzioaren 86. artikuluan zehaztutako baimenaz baliatuta, Gobernuaren laugarren presidenteorde eta Trantsizio Ekologikorako ministroak eta Ogasuneko ministroak proposatuta, eta Ministro Kontseiluak 2021eko ekainaren 24ko bileran gaia eztabaidatu ondoren, honako hau

## XEDATZEN DUT:

1. artikulua. *Europar Batasunaren barruko energia elektrikoaren entrega, inportazio eta eskurapen jakin batzuei aplikatu beharreko balio erantsiaren gaineko zergaren zerga-tasa.*

Errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik 2021eko abenduaren 31ra arteko ondorioekin, balio erantsiaren gaineko zergaren ehuneko 10eko tasa aplikatuko zaie Europar Batasunaren barruko energia elektrikoaren entrega, inportazio eta eskurapenei, hauen alde egiten badira:

a) Kontratututako potentzia (potentzia-termino finkoa) 10 kW-tik beherakoa duten elektrizitate-hornidurako kontratuen titularren alde, horniduraren tentsio-maila eta kontratazio-modalitatea edozein direla, baldin eta fakturazio-aldiko azken egunaren aurreko azken hilabete naturalari dagokion eguneko merkatuaren batez besteko prezio aritmetikoa 45 €/ MWh-tik gorakoa bada.

b) Elektrizitate-hornidurako kontratuen titularrak, elektrizitatearen gizarte-bonua jasotzen badute eta kaltebera larriaren edo gizarte-bazterketako arriskuan dagoen

kaltebera larriaren izaera onartuta badute, urriaren 6ko 897/2017 Errege Dekretuan (Kontsumitzaile kalteberak zein diren, gizarte-bonua eta energia elektrikoaren etxeko kontsumitzaileentzako beste babes-neurri batzuk arautzen dituena) ezarritakoarekin bat etorritz.

2. artikulua. *Energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergaren zerga-oinarria eta ordainketa zatikatuen zenbatekoa zehaztea 2021eko ekitaldirako.*

Energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergaren zerga-oinarria, 2021eko ekitaldirako, hau izango da: energia elektrikoaren zentralerako barretan neurtua-ekoizteagatik eta sistema elektrikoan sartzeagatik zergadunak zergaldian instalazio bakoitzeko jaso behar duen guztizko zenbatekoa, azken hiruhileko naturalean sisteman sartutako elektrizitateari dagozkion ordainsariak kenduta.

Hirugarren hiruhilekoko ordainketa zatikatuak kalkulatzeko, zergaldiko energia elektrikoaren ekoizpenak zentralerako barretan neurtuta daukan balioa hartuko da, eta hiruhileko horretan sisteman sartutako elektrizitateari dagozkion ordainsariak kenduko zaizkio, Jasangarritasun Energetikorako Neurri Fiskalei buruzko abenduaren 27ko 15/2012 Legeak 8. artikuluan aurreikusten duen zerga-tasa aplikatuko da, eta aurretik egindako ordainketa zatikatuen zenbatekoa kenduko da.

Laugarren hiruhilekoko ordainketa zatikatuak kalkulatzeko, zergaldiko energia elektrikoaren ekoizpenak zentralerako barretan neurtuta daukan balioa hartuko da, eta hirugarren hiruhileko naturalean sisteman sartutako elektrizitateari dagozkion ordainsariak kenduko zaizkio, abenduaren 27ko 15/2012 Legeak 8. artikuluan aurreikusten duen zerga-tasa aplikatuko da, eta aurretik egindako ordainketa zatikatuen zenbatekoa kenduko da.

Lehenengo xedapen gehigarria. *Energia berriztagarriko iturrien, kogenerazioaren eta hondakinen bidez energia elektrikoaren ekoizteko instalazioei aplikatu beharreko ordainsari-parametroak berrikustea.*

1. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak, likidazioez arduratzen den erakundea den aldetik, behar den likidazioa egingo du berariazko ordainsari-araubidetik datorren ordainsaria egokitzeko, energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga etetearen ondorioz instalazioek ordaindu ez dituzten zenbatekoak kenduta, 2. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2. Egokitzapen hori artikuluko hori indarrean jarri ondoren egin beharreko doikuntzak dituen lehen likidazioan egingo da.

Bigarren xedapen gehigarria. *Sistema elektrikoak 2020ko ekitaldian izandako superabitaren helburua.*

Abenduaren 26ko 24/2013 Legeak 19. artikuluan aurreikusitakoa gorabehera, salbuespen gisa, 2020ko ekitaldia ixtean sistema elektrikoaren diru-sarreraren superabita sortzen bada, hura guztia aplikatuko da 2021eko ekitaldiko diru-sarreraren eta kostuen arteko aldi baterako desorekak eta desbideratze iragankorrak estaltzeko.

Hirugarren xedapen gehigarria. *Instalazioen administrazio-baimenaren eskaerak, Jurisdikziopeko uretan elektrizitatea sortzeko instalazioak baimentzeko eskaerak tramitatzeko administrazio-prozedura ezartzeko ekainaren 20ko 1028/2007 Errege Dekretuaren babesean aurkeztuak.*

1. Errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik, eta Gobernuak jurisdikziopeko uretan energia elektrikoaren sortzeko instalazioetarako arau-esparru berri bat onartu arte, ez da onartuko itsas energia eolikoa sortzeko instalazioen zona-erreserbaren eskaera berririk, ekainaren 20ko 1028/2007 Errege Dekretuaren II. tituluan ezarritako prozeduraren esparruan.

2. Ez da onartuko, halaber, itsas energia eolikoa sortzeko instalazioen administrazio-baimenaren eskaera berririk ekainaren 20ko 1028/2007 Errege Dekretuaren 32. artikuluan ezarritakoaren babesean.

Xedapen gehigarri hau indarrean jarri aurretik aurkeztutako administrazio-baimenen eskaeren izapideek aurrera egingo dute, ekainaren 20ko 1028/2007 Errege Dekretuan aurreikusitakoaren arabera.

Xedapen iragankor bakarra. *2021. urteko ordainketak.*

Errege lege-dekretu honek erregulazio-kanonen eta ura erabiltzeko tarifen arloan xedatutakoa 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko da. Ondorio horietarako, errege lege-dekretu hau indarrean jartzen den egunetik 2022ko ekainaren 30era arte ordaindu ahalko dira 2021eko ekitaldiko erregulazio-kanona eta ura erabiltzeko tarifa.

Azken xedapenetako lehenengoa. *Eskumen-titulua.*

Errege lege-dekretu hau Espainiako Konstituzioaren 149.1 artikuluko 10., 13., 14., 22. eta 25. puntuetan xedatutakoaren babesean ematen da. Artikulu horrek Estatuari esleitzen dio arlo hauen gaineko eskumena: kanpo-merkataritza; jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarriak eta koordinazioa; herri-ogasuna; baliabide eta aprobetxamendu hidraulikoen gaineko legegintza, antolamendua eta emakida, urek autonomia-erkidego bat baino gehiago zeharkatzen dutenean; eta meatzeen eta energiaren araubideen oinarriak.

Azken xedapenetako bigarrena. *Azaroaren 17ko 34/2020 Errege Lege Dekretua aldatzea (34/2020 Errege Lege Dekretua, azaroaren 17koa, Enpresa-kaudimena eta energiaren sektorea laguntzekoa, eta zerga-arloko premiazko neurriena).*

Aldatu egiten da azaroaren 17ko 34/2020 Errege Lege Dekretuaren xedapen iragankor bakarra (34/2020 Errege Lege Dekretua, azaroaren 17koa, Enpresa-kaudimena eta energiaren sektorea laguntzeko, eta zerga-arloko premiazko neurriena), eta honela geratzen da idatzita:

«Espainian egindako atzerriko zuzeneko inbertsio batzuen liberalizazioa eteten duen araubidea, uztailaren 4ko 19/2003 Legeak 7 bis artikulua 2. eta 5. apartatuetan arautzen duena, 2021eko abenduaren 31ra arte aplikatuko zaie Europar Batasuneko eta Europako Merkataritza Askearen Elkarteko beste herrialde batzuetan bizi direnek Espainiako enpresa kotizatueta egindako atzerriko zuzeneko inbertsioei, edo kotizatu gabeko enpresetan egindakoei, inbertsioaren balioa 500 milioi eurotik gorakoa bada. Ondorio horietarako, Espainiako sozietate kotizatuak izango dira Espainiako bigarren mailako merkatu ofizial batean negoziatzeko onartuta dauden akzioak dauzkaten sozietateak, baldin eta egoitza soziala Espainian badute.

Araubide iragankor honen ondorioetarako, inbertsioak atzerriko zuzeneko inbertsioetat hartuko dira, baldin eta, haien ondorioz, inbertsiogilea Espainiako sozietatearen kapital sozialaren ehuneko 10eko edo gehiagoko partaidetza edukitzera igarotzen bada, edo baldin eta, sozietate-eragiketaren edo egintza edo negozio juridikoaren ondorioz sozietate horren gaineko kontrola hartzen badu inbertsiogileak Lehia Defendatzeko Legearen (15/2007, uztailaren 3koaren) 7.2 artikuluan ezarritako irizpideei jarraikiz, hala Europar Batasuneko eta Europako Merkataritza Askearen Elkarteko herrialdeetan bizi direnek nola Espainian bizi direnek egin, betiere haien benetako titulartasuna Europar Batasuneko eta Europako Merkataritza Askearen Elkarteko beste herrialde batzuetan bizi direnei badagokie. Benetako titulartasun hori dagoela ebatziko da azken horiek azken buruan, zuzenean edo zeharka, inbertitzailearen kapitalaren edo boto-eskubideen ehuneko 25 baino gehiago daukatenean edo kontrolatzen dutenean, edo beste bide batzuk erabilita, zuzenean edo zeharka, inbertitzailearen gaineko kontrola dutenean».

Azken xedapenetako hirugarrena. *Kanarietako Ekonomia eta Zerga Araubidea aldatzeko uztailaren 6ko 19/1994 Legea aldatzea.*

Aldatu egiten da Kanarietako Ekonomia eta Zerga Araubidea aldatzeko uztailaren 6ko 19/1994 Legearen hamalagarren xedapen gehigarria, eta 2020. urtean hasten diren zergaldietatik aurrera izango ditu ondorioak. Honela geratzen da idatzita:

«Hamalagarren xedapen gehigarria. *Kanarietan gauzatzen diren ekoizpen zinematografikoetan, ikus-entzunezko sailetan, eta arte eszenikoen eta musikalen zuzeneko emankizunetan inbertsioak egiteagatiko kenkarien mugak.*

Film luze eta labur zinematografikoen eta fikziozko, animaziozko edo dokumentalezko ikus-entzunezko sailen ekoizpen espainiarretan inbertsioak egitearen ondoriozko kenkaria, Sozietateen gaineko Zergaren azaroaren 27ko 27/2014 Legeak 36. artikulua 1. apartatua aipatutakoa, ezingo da izan 12,4 milioi eurotik gorakoa Kanarietan egindako ekoizpenen kasuan.

Film luze zinematografikoen edo ikus-entzunezko obren atzerriko ekoizpenek Espainiako lurraldean gastuak egitearen ondoriozko kenkaria, 27/2014 Legeak 36. artikulua 2. apartatua aipatutakoa, ezingo da izan 12,4 milioi eurotik gorakoa, gastuak Kanarietan egindakoak direnean.

27/2014 Legeak 36. artikulua 2. apartatuko a) letran ezarritako gutxienezko gastu-zenbatekoari dagokionez, Kanarietan atzerriko ekoizpen baten animazioan egindako gastuek 200.000 eurotik gorakoak izan beharko dute. Efektu bisualen zerbitzuak gauzatzeari dagokionez, 27/2014 Legeak 36. artikulua 2. apartatuko b) letran xedatutakoa aplikatuko da.

Arte eszenikoen eta musikalen zuzeneko emankizunak ekoiztean eta erakustean gastuak egitearen ondorioz kenkaria aplikatzen denean –27/2014 Legeak 36. artikulua 3. apartatua aipatutakoa–, kenkari horren zenbatekoa ezingo da izan 900.000 eurotik gorakoa, gastuak Kanarietan egindakoak direnean».

Azken xedapenetako laugarrena. *Energia elektrikoaren garraio- eta banaketa-sareetarako sarbidearen eta konexioaren abenduaren 29ko 1183/2020 Errege Dekretua aldatzea.*

1. Apartatu berri bat –4. apartatua– eranstean da Energia elektrikoaren garraio- eta banaketa-sareetarako sarbidearen eta konexioaren abenduaren 29ko 1183/2020 Errege Dekretuaren 19.1.d) artikuluan, eta honela geratzen da idatzita:

«4.) Lehiaketek irizpide sozioekonomiko eta ingurumeneko hauek jaso ahalko dituzte instalazioak dauden eremuetan:

a) Eremuan eta bertako biztanleengan izango duen eragin sozioekonomikoa; metodologia objektibo eta kuantifikagarri baten bidez balioetsiko da, atal hauetan jasotakoaren arabera:

i. Tokiko eta ondoko udalerrietan sortutako zuzeneko enpleguak, bai sortze- edo biltegitratze-instalazioak eraikitze eta abian jartzeko prozesuan bai instalazio horiek martxan dauden bitartean sortutakoak.

ii. Tokiko eta ondoko udalerrietan sortutako zeharkako enpleguak, bai instalazioak eraikitze eta martxan jartzeko prozesuan bai instalazioak martxan dauden bitartean sortutakoak. Proiektuaren ondorioz berriztagarriak garatzearekin zerikusia duten, horrekin bateragarriak diren edo berriztagarriak garatzearen onuradun izan daitezkeen sektoreen edo jardueren arabera bereizi beharko da.

iii. Tokiko, eskualdeko, Estatuko eta Batasuneko industriaren balio-katean duen eragin ekonomikoa, sortze- edo biltegitratze-proiektua garatzeko eskuratutako zerbitzuen eta ondasunen inbertsioari dagokionez neurtuta, proiektuaren inbertsio osoaren gainean.

iv. Partaidetza-ehunekoa, sortze- edo biltegiatze-proiektuan tokiko inbertsiogileek eta instalazioa egongo den eremuko enpresa eta administrazioek egindako inbertsioaren arabera neurtuta.

v. Sortze- edo biltegiatze-instalazioek lortutako diru-sarrerak instalazioa egongo den eremuan berriz inbertitzeko mekanismoak aurkeztea.

b) Ingurumenaren gaineko eragin-mailaren araberako puntuazioa ezarriko da. Ondorio horietarako, *Energia berriztagarriak (haize-energia eta energia fotovoltaikoa) ezartzeko ingurumen-zonakatzea* izeneko mapako eremuen araberako sailkapena hartuko da kontuan; Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioko Ingurumenaren Estatu Idazkaritzak egin du mapa hori».

2. Letra berri bat –d) letra– eranstean da abenduaren 29ko 1183/2020 Errege Dekretuaren 19.2 artikuluan:

«d) 19.1.d) artikuluan 4. apartatuko a) letran aipatutako konpromisoak ez betetzeagatik aplikatuko diren zigorrak».

3. Apartatu berri bat –4. apartatua– eranstean da abenduaren 29ko 1183/2020 Errege Dekretuaren 19.2 artikuluan:

«4. 2.d) apartatuan aurreikusitakoaren ondorioetarako, parte-hartzaile bakoitzak berme bat aurkeztu beharko du Gordailuen Kutxa Orokorrean, 18.1 artikuluan aipatzen den aginduan xedatutako zenbatekoarekin. Berme horren zenbatekoa 19.1.d) artikuluan 4. apartatuko a) letran jasota dauden eta agindu zehatz horretarako aplikatzekoak diren irizpideekiko proportzionala izango da».

Azken xedapenetako bosgarrena. *Uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Uren Legearen testu bategina aldatzea.*

Uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Uren Legearen testu bateginaren 114.7 artikulua honela geratzen da idatzita:

«7. Arroko erakundeak, artikulua honetan ezarritakoarekin bat etorritik, erregulazio-kanonaren eta ura erabiltzeko tarifaren urteko zenbatekoak zehaztuko ditu horiek zer ekitaldira aplikatzen zaizkion eta hura hasi aurretik, eta haiek aplikatu behar diren urte naturalaren hasieratik hurrengo urteko lehen seihilekoaren azken egunera arte ezarri ahalko ditu».

Azken xedapenetako seigarrena. *Apirilaren 11ko 849/1986 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamendua –uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Uren Legearen testu bateginaren atariko titulua eta I., IV., V., VI., VII. eta VIII. tituluak garatzen dituen– aldatzea.*

1. Apirilaren 11ko 849/1986 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduari –uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Uren Legearen testu bateginaren atariko titulua eta I., IV., V., VI., VII. eta VIII. tituluak garatzen dituen– 303. artikuluko lehen paragrafoa aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«303. artikulua.

Erregulazio-kanona hura aplikatu behar den urte naturalaren hasieratik hurrengo urteko lehen seihilekoaren azken egunera arte ordaindu ahalko da».

Artikuluan gainerako zatia bere horretan idatzita geratzen da.

2. Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduaren 310. artikuluko lehen paragrafoa aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«310. artikulua.

Ura erabiltzeko tarifa hura aplikatu behar den urte naturalaren hasieratik hurrengo urteko lehen seihilekoaren azken egunera arte ordaindu ahalko da».

Artikuluaren gainerako zatia bere horretan idatzita geratzen da.

3. Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduaren 311. artikuluko lehen paragrafoa aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«311. artikulua.

Erregulazio-kanonak eta ura erabiltzeko tarifak onartu ondoren, arroko erakundeak dagozkion likidazioak egingo ditu haiek aplikatu behar diren urte naturaleko urtarrilaren 1etik hurrengo urteko ekainaren 30era arte, eta interesdunei jakinaraziko dizkie Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitako moduan».

Artikuluaren gainerako zatia bere horretan idatzita geratzen da.

Azken xedapenetako zazpigarrena. *Arauzko zenbait xedapenen maila babestea.*

Errege lege-dekretu hau indarrean jarri ondoren errege lege-dekretuak aldatzen dituen erregelamendu-mailako arauen gainean egiten diren aldaketak, bereziki haren azken xedapenetako laugarren eta seigarrenari dagokionez egindakoak, errege-dekretu mailako arauen bidez egin ahalko dira.

Azken xedapenetako zortzigarrena. *Arauk emateko gaikuntza.*

Behar diren xedapenak emateko eta neurriak hartzeko gaikuntza ematen zaie Gobernuari eta Ogasun Ministerioaren eta Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioaren titularrei, beren eskumenen esparruan, errege lege-dekretu honetan xedatutakoa garatzeko eta betearazteko.

Azken xedapenetako bederatzigarrena. *Indarrean jartzea.*

Errege lege-dekretu hau *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, hirugarren xedapen gehigarria izan ezik, errege lege-dekretu hau *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratzen den egun berean jarriko baita indarrean.

Madril, 2021eko ekainaren 24a.

FELIPE E.

Gobernuko presidentea,  
PEDRO SÁNCHEZ PÉREZ-CASTEJÓN